

Foru Aldundiak 340.000 euroan lizitatzen du Arabako Mendialdeko asfalto naturalen meatzaritza paisaien kudeaketa integrala

Kontratuak Mina Lucíaren mantentze lanak, jarraipena eta erabilera publikoa bermatzen ditu, baita Asfaltokiaren kudeaketa ere

Gasteiz, 2026ko irailaren 1a. Foru Gobernu Kontseiluak gaur onartu du Arabako Mendialdeko asfalto naturalen meatzaritza paisaien kudeaketa integraleko zerbitzuak lizitzatzeko prozedura. Kontratuak 340.000 euroko gehieneko aurrekontua, BEZa barne, izango du, eta bi urteko iraupena, beste hiru urtez luzatzeko aukerarekin.

Kontratuak Mina Lucíaren funtzionamendu egokia eta erabilera publiko jasangarria bermatuko ditu, baita berriki birgaitutako Asfaltokia, Arabako Mendialdeko Asfalto Naturaleko Meatzaritza Paisaien Interpretazio Zentroaren kudeaketa ere. Zentroa Atauriko Vasco-Navarro trenbidearen geltoki zaharrean dago.

Kontratazioa bi lotetan egituratu da. Lehenengo loteak 44.770 euroko aurrekontua izango du, BEZa barne, eta Mina Lucía instalazioen eta Atauriko meatzaritza gunearen inguruko instalazioen jarraipena eta kontrola jasotzen ditu, haien erabilera publiko jasangarria bermatzeko. Bigarren loteak 295.230 euroko zuzkidura izango du, BEZa barne, eta Asfaltokiaren eta Mina Lucíaren kudeaketa integrala hartuko du barne.

Mina Lucíaren kasuan, zerbitzuak instalazioen eta lurpeko egituren kontrol geoteknikoa, ekipo eta azpiegituren jarraipena, instalazio elektrikoak eta suteetatik babesteko sistemak kontrolatzea eta meategiaren ingurumen jarraipena barne hartuko ditu. Bereziki, tenperatura eta hezetasuna, asfalto formazioen kontserbazio egoera eta saguzarren populazio posibleak bezalako parametroei erreparatuko zaie.

Kontratuak hileko, hiruhileko eta urteko ikuskapenak egitea aurreikusten du, instalazioen, euste elementuen, babes ekipoen, barneko pasabidearen, sistema elektrikoaren eta argiztapen sistemen egoera eta bisitekin lotutako elementu guztiak egiaztatzeko. Anomaliarik edo kalterik antzemanaz gero, horiek konpontzeko beharrezko gomendioak proposatu beharko dira.

Asfaltokia eta Mina Lucía kudeatzea

Bigarren loteak Asfaltokia eta Mina Lucía zuzendu eta osorik kudeatzeko zerbitzua izango dute. Besteak beste, jendearentzako arreta, kudeaketa teknikoa, kultura, hezkuntza eta partaidetza programazioa eta komunikazio kanpainak garatzea jasoko ditu.

Aurreikusitako jardueren artean, hiru hilean behin museografia erakusketa aldi baterako bat antolatzea dago, baita asfalto naturalen inguruko esperientziak ere, hala nola jokoak edo ihes-gelak, eta hitzaldiak eta solasaldiak antolatzea. Programazio guztia bi hizkuntza ofizialetan garatu beharko da.

Zerbitzuak, halaber, Arabako Mendialdeko asfalto naturalen balio geologiko, natural, historiko eta sozioekonomikoak zabaltzea sustatu beharko du, eta sinergiak sortu beharko ditu eskualdeko, lurraldeko eta Euskadiko beste baliabide ekoturistiko batzuekin.

Arabako Mendialderako ekoturismo baliabide berria

Arabako Foru Aldundiak hainbat jarduera garatu ditu azken urteotan asfalto naturalekin lotutako meatzaritza ondarea berreskuratu eta balioan jartzeko. 2024 eta 2025 artean, «Asfalto Naturaleko Meatzaritza Paisaiak eta Vasco-Navarro Bide Berdea» Helmugako Turismo Jasangarritasuneko Planean jasotako jarduketak gauzatu ziren. Plan hori Next Generation EU funtsen bidez finantzatu da.

Jarduketa horiei esker, 39 kilometroko interpretazio-ibilbidea jarri da martxan. Vasco-Navarro Bide Berdea, GR-1 Ibilbide Historikoa eta Izki Parke Naturaleko bideen sare orokorra baliatuz, eskualdeko hainbat baliabide ekoturistiko lotzen ditu, besteak beste, Mina Lucía eta Asfaltokia.

Mina Lucía 2023an ireki zen publikoarentzat, segurtasun-lanak, sendotze-lanak eta erabilera publiko eta ekoturistikorako egokitzapen lanak egin ondoren. Ordutik, bisitek hazkunde finkatua izan dute, eta baliabide hori Arabako Mendialdeko natura eta kultura turismoaren erreferente bihurtu da.

Bestalde, Asfaltokiak joan den abuztuan ireki zituen ateak publikoarentzat, Atauriko geltoki zaharra birgaitu ondoren. Proiektuari esker, eraikin historikoa berreskuratu eta eskualdeko asfalto naturalekin lotutako natura, geologia eta industria ondarea interpretatu eta zabaltzeko zentro bihurtu da. Jarduketak 2,1 milioi euroko inbertsioa ekarri zuen, Helmugako Turismo Jasangarritasuneko Planetik etorritakoa eta Europar Batasuneko Berreskuratze, Eraldaketa eta Erresilientzia Planaren – NextGenerationEU– bidez finantzatua.

Lizitazio honekin, Foru Aldundiak Arabako Mendialdeko ondare geologiko eta meatzaritza-kulturalaren berreskurapen eta balioztatze estrategiari jarraipena ematen dio, eta, aldi berean, Vasco-Navarro Bide Berdearekin eta Izki Parke Naturalarekin lotutako garapen ekonomiko jasangarri bat bultzatzen du.

Foru Aldundiak hitzarmen berriak onartu ditu Arabako Errioxarekin, Arabako Lautadarekin eta Amurriorekin, indarkeria matxistaren biktimei arreta emateko

Akordioek jarraipena ematen diote 2018an hasitako lankidetzari, eta lehen aldiz txertatzen dute formalki sexu-indarkeriaren biktimei laguntza integrala emateko Tximeletak zentroa

Foru Gobernu Kontseiluak lankidetzak-hitzarmen bana onartu du gaur Arabako Errioxako eta Arabako Lautadako kuadrillekin eta Amurrioko Udalarekin, indarkeria matxistako egoeretan esku-hartzea eta arreta integrala koordinatzeko. Akordio horiek jarraipena ematen diote erakundeak 2018tik egiten ari diren elkarlanari, eta helburu horretarako sinatutako hitzarmenen hirugarren belaunaldia dira.

Hitzarmen horiek berritzeak berretsi egiten du Arabako Foru Aldundiak indarkeria matxistaren biktimei emakumeentzako baliabideen eta zerbitzuen sarea indartzeko duen konpromisoa, bai eta erakundeen arteko lankidetzak ere, Arabako lurralde osoan erantzun koordinatua, hurbila eta espezializatua bermatzeko.

Gizarte-laguntza integrala indarkeria matxistaren biktimei emakume guztien eta haien mende dauden adingabeen eskubidea da. Esparru horretan, Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeak foru-sarean dauden arreta, babes, berreskurapen eta laguntzako zerbitzu espezializatuak hurbilduko dizkie udalerri horietan bizi direnei.

Erabiltzaileek honako baliabide hauek eskuratu ahal izango dituzte, besteak beste: Hegoak Foru Zerbitzua, indarkeria matxistako egoeretan laguntza psikosoziala eta orientazio soziojuridikoa emateko; Esku-hartze Sozioedukatiboko eta Psikosozialeko eta Laguntza Sozialeko Zerbitzua (ESPLSZ); egoitza-baliabideen eta harrera-pisuen foru-sarea, eta gizarte-larrialdiko egoerarako arreta.

Hitzarmen berriek Tximeletak Sexu Indarkeriaren Biktimei Laguntza Integrala emateko Zentroa jasotzen dute formalki, Arabako Foru Aldundiak 2024an abian jarritakoa. Nahiz eta Arabako Errioxatik, Arabako Lautadatik eta Amurriotik etorritako emakumeek baliabide hori eskuratu ahal izan duten ireki zenetik, gaur onartutako akordioek berariaz jasotzen dute zerbitzu hori lehen aldiz bermatutako prestazioen katalogoan.

Bestalde, Arabako Errioxako eta Arabako Lautadako kuadrillek eta Amurrioko Udalak zerbitzu espezializatuak emateko beharrezkoak diren espazioak emango dituzte beren lurralde-eremuetan, eta, horrez gain, kasuak bideratzen, erabiltzaileei informazioa ematen eta administrazioen arteko koordinazio teknikoan lagunduko dute.

Hitzarmenak 2029ra arte egongo dira indarrean, luzatzeko aukerarekin, eta hurbiltasunean, espezializazioan eta erakundeen arteko lankidetzan oinarritutako arreta-eredu bat finkatzen dute, Araban indarkeria matxistaren biktimei erantzun integrala bermatzeko.